



Esp. kodea: 2016SAPL0003

Gaia: PLENOA 2016/04/19
Hasiera eguna: 2016/04/12

AKORDIOEN LABURPENA

Udal Plenoak, 2016ko apirilaren 19a egindako bilkuran, erabaki hauek hartu dituela informatzen dut:

1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

Udal Plenoak, aho batez, 2016ko martxoaren 22a egindako bileraren akta onartu du, proposatutako zuzenketak onartu ostean.

2.-“ZARUGALDE KALEA 37AN DAGOEN ERAIKINA ERAITSI ETA INGURUA EGOKITZEKO OINARRIZKO PROIEKTUA” BURUTZEKO BEHARREZKO ONDASUNAK ESKURATZEKO DESJABETZE ESPEDIENTEA: AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK.

Osoko Bilkurak erabaki du onartzea, Juan José Otaduy Echevarría eta Marina Pérez Mendiguren Fernández de Retana andreak egindako alegazioa, 1 finkako jabeak (etxabe ezkerreko lokala), desjabetzak eragindako ondasunen eta eskubideen zerrendari dagokionez eta hortaz, zerrenda ori behin betiko onartzea.

Horretaz gain, zerrenda horretako ondasunen eta eskubideen titularrei HAMABOST EGUNeko epea ematen zaie prezioa proposatu dezaten eta okupazioa presako deklaritzen da.

3.-ARRASATEKO UDAL HARRERA PROTOKOLOA: HASIERAKO ONARPENA EMATEKO PROPOSAMENA

Gure lurraldean prozesu migratzaileen ondorioz emandako aldaketak direla eta Debagoienean hutsune handia zegoela sumatu zen eta beharra ikusi zen gure eskualdean harrera protokoloak eratzeko

Horretarako, Foru Aldundiaren diru-laguntzaz finantzatuta, Debagoieneko Mankomunitateak bi teknikari kontratatu zituen, 2015eko martxotik irailera arte, Harrera protokolo bat egin zezaten. Lan honen emaitza jasota, osoko bilkurak Arrasateko Udal Harrera Protokoloari hasierako onespina ematea erabaki du eta espedientea jendaurrean erakusgarri izango da 30 egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzen denetik, egoki iritzitako erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ahal ditzaten interesatuek.

4.-ARRASATEKO UDALAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, ARCELOR-MITTAL-EKO LANGILEGOAREN ALDE

Osoko bilkurak Adierazpen Instituzionala egin du Acerlor-Mittaleko langilegoaren alde.

Arrasaten, 2016ko apirilaren 19an

IDAZKARIA

Amaia Gorrotxategi Zubizarreta